



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko urtarrilaren 25a

9. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita 15/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan 290/1998 Foru Dekretua, Nafarroako Urrezko Dominaren ematea arautzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da 1978ko Sanferminetako gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko behar den erabakia har dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2018-2019 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuaz informatzeko kanpaina irizpide objektibo, ekitatezko eta informatiboetan oinarrituta egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-113 errepidearen Castejongo tartea aldatzeko proiektu bat diseina eta egin dezan, Ebro ibaiak gainezka eginez gero errepidea ur azpian gelditzea ekiditeko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hitzarmen Ekonomikoaren bidezko ekarpenaren erregulaziotik heldu diren aparteko diru-sarrerak zerbitzu publikoak hobetzeko erabil ditzan. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat presta dezan elurte handien kasuan sortzen diren arazoei eta arazo horiek murrizteko edo leuntzeko hartu beharreko neurriei buruz. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (5. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Kontuen Ganberako 2018. urterako plantilla organikoa eta 2017ko abenduaren 31ko funtzionario-zerrenda (6. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita 15/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko urtarrilaren 18an egindako bileran, honako Foru Lege proposamen hau ezetsi egin zuen: “Foru Lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita 15/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzekoa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan 290/1998 Foru Dekretua, Nafarroako Urrezko Dominaren ematea arautzen duena.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko urtarrilaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan 290/1998 Foru Dekretua, Nafarroako Urrezko Dominaren ematea arautzen duena".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du alda dezan irailaren 28ko 290/1998 Foru Dekretua, Nafarroako Urrezko Dominaren ematea arautzen duena, honako helburuekin:

1.- Bermatzea Nafarroako gizartearen osotasunak parte har dezala, baloratu beharko diren proposamen arrazoituak bilduz.

2.- Nafarroako Gobernuak prozedura berri bat onestea, zeinaren bidez baloratuko baita, herritarren hautagaitzak oinarri hartuta, hautagaitza horiek zenbateraino laguntzen duten balio demokratikoak sendotzen eta Nafarroaren onura aldeztu, sustatu eta bultzatu.

3.- Nafarroako Gobernuak arrazoitzea dominari emanen zaion, bigarren puntuan ezarritako irizpideak kontuan harturik

4.- Gaurkotasunezko eredia eskaintzen duten pertsona, instituzio, entitate edo kolektiboei eman dakien.

5.- Genero-parekidetasunaren irizpidea lehenestea, sarituen artean emakumerik ez egotea konpentsatzeko eta, hartara, populazioaren % 50ek Nafarroako gizartearen balioen aurrerabideari egindako ekarpena aintzatesteko".

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da 1978ko Sanferminetako gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko behar den erabakia har dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko urtarrilaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da 1978ko Sanferminetako gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko behar den erabakia har dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du behar den erabakia har dezan, Sekretu Ofizialei buruzko apirilaren 5eko 9/1968 Legean ezarritakoarekin bat –urriaren 7ko

48/1978 Legeak aldatu zuen–, 1978ko Sanferminetako gertakariak direla-eta Estatuko Administrazioan dauden afera, egintza, dokumentu, informazio, datu eta objektu guztiak desklasifikatzeko, eta zehazki, honekin batera doan eranskinean adierazitakoak.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuaren Ministro Kontseiluari igorriko dio erabaki hau”.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta Parlamentuaren kudeaketarako Agora sisteman.)

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da 2018-2019 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuaz informatzeko kanpaina irizpide objektibo, ekitatezko eta informatiboetan oinarrituta egin dezan.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko urtarrilaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da 2018-2019 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuaz informatzeko kanpaina irizpide objektibo, ekitatezko eta informatiboetan oinarrituta egin dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du 2018-2019 ikasturterako aurreinskripzio-prozesuaz informatzeko kanpaina egin dezan irizpide objektibo, ekitatezko eta informatiboetan oinarrituta, seme-alaben eskolatzearen hizkuntza erduei dagokienez familiei alde aurretik ezer ezarri gabe eta haiengan eragin gabe”.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-113 errepi-  
dearen Castejongo tartea aldatzeko proiektu bat diseina eta egin dezan,  
Ebro ibaiak gainezka eginez gero errepidea ur azpian gelditzea ekiditeko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko urtarrilaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-113 errepidearen Castejongo tartea aldatzeko proiektu bat diseina eta egin dezan, Ebro ibaiak gainezka eginez gero errepidea ur azpian gelditzea ekiditeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratadain agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du proiektu bat diseina eta egin dezan, N-113 errepidearen Castejongo tartea – 76. kilometrotik 77. kilometroa bitartekoa– aldatzekoa, Ebro ibaiak gainezka eginez gero errepidea ur azpian gelditzea ekiditeko”.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hitzarmen  
Ekonomikoaren bidezko ekarpenaren erregulaziotik heldu diren aparteko  
diru-sarrerak zerbitzu publikoak hobetzeko erabil ditzan.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hitzarmen Ekonomikoaren bidezko ekarpenaren erregulaziotik heldu diren aparteko diru-sarrerak zerbitzu publikoak hobetzeko erabil ditzan”. Mozio hori

María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztu zuen eta 2018ko urtarrilaren 12ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat  
presta dezan elurte handien kasuan sortzen diren arazoei eta arazo  
horiek murrizteko edo leuntzeko hartu beharreko neurriei buruz.**

*OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: “Mozioa, Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat presta dezan elurte handien kasuan sortzen diren arazoei eta arazo horiek murrizteko edo leuntzeko hartu beharreko neurriei buruz”. Mozio hori Luis

Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztu zuen eta 2018ko urtarrilaren 16ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Kontuen Ganberako 2018. urterako plantilla organikoa eta 2017ko abenduaren 31ko funtzionario-zerrenda.**

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiek hurrenez hurren xedatzen dute urtero onetsi behar direla erakunde horren zerbitzuko langileen plantilla organikoa eta erakunde horren aurreko urteko abenduaren 31ko funtzionario-zerrenda.

Hartara, ikusita erakundeko idazkari nagusiak urtarrilaren 15ean aurkeztutako proposamena, Ganberako administratzaileak, kontu-hartzaileak eta zerbitzu juridikoek eginiko aldeko txostenak jaso ondotik, eta Kontuen Ganberako Langileen Batzordea informatu eta hari entzun ondotik, lehendakari naizen aldetik, nire ahalmen eta esku-menak baliatuta, Ganberako auditoreei entzun ostean, ondokoa

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.** Nafarroako Kontuen Ganberako 2018. urterako plantilla organikoa onestea, zeina ebazpen honen 1. eranskin gisa atxikirik baitago.

**Bigarrena.** Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioen 2017ko abenduaren 31ko zerrenda onestea, zeina ebazpen honen 2. eranskin gisa atxikirik baitago.

**Hirugarrena.** Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, ezagut dezan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agin dezan, eta Kontuen Ganberaren web orrian argitaratzea.

Iruñean, 2018ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

## 1. eranskina

## Kontuen Ganberako plantilla organikoa 2018. urterako

Lanpostua	Kopurua	Maila	Araubide juridikoa	Euskara maila	Izendapen librekoak	Esklusibitate	Lanpostua	Berriazko osagarria	Berriazko osagarria
Lehendakariaren idazkaria	1		G		X				
Idazkari Nagusia	1	A	F		X	55	93.00		35
Auditorea	4	A	F			55	93.00		10
Auditorea	1	A	F	C1		55	93.00		10
Legelaria	2	A	F			55	76.00		
Kazetari-itzultzailea	1	A	F	C1		55	76.00		
Informatikako goi mailako teknikaria	2	A	F			55	53.00		
Auditoretzako teknikari-Kontu-hartzailea	1	B	F			55	61.40		20
Auditoretzako teknikaria	18	B	F			55	61.40		
Auditoretzako teknikaria	3	B	F	C1		55	61.40		
Administratzailea:	1	C	F		X	55	69.00	12	
Administraria	5	C	F				57.18	12	
Administraria	1	C	F	C1			57.18	12	
Sistema informatikoetako ofiziala	1	C	F				57.18	12	
Mandataria	1	D	F	B2			47.50	15	
<b>GUZTIRA</b>	<b>43</b>								

F: funtzionarioa

G: Kabineteko behin-behineko langilea – izendapen librekoa

**2. eranskina**  
**2017ko abenduaren 31n Nafarroako Kontuen Ganberaren Zerbitzuan**  
**zeuden funtzionarioen zerrenda**

<b>Izen-abizenak</b>	<b>Maila</b>	<b>Gradua</b>	<b>Lanpostua</b>	<b>Administrazio egoera</b>
Ordoki Urdazi, Luis M <sup>a</sup>	A	7	Idazkari Nagusia	Jardunean
Cabeza del Salvador, José Ignacio	A	7	Auditorea	Jardunean
Moreno Orduña, Karen	A	3	Auditorea	Jardunean
Aurrecoechea Gutiérrez, Miguel Ángel	A	6	Auditorea	Jardunean praktikaldian
Olaechea Estanga, M <sup>a</sup> Asunción	A	6	Auditorea*	Zerbitzu bereziak
Lanpostu hutsa	A	-	Auditorea	-
Ezquerro Royo, José Luis	A	7	Legelaria	Jardunean
Sánchez Lerma, Gemma Angélica	A	5	Legelaria	Jardunean
Arrieta Gutiérrez, Francisco Javier	A	7	Informatikako sistemen goi mailako teknikaria	Jardunean
Lanpostu hutsa	A	-	Informatikako sistemen goi mailako teknikaria	-
Erbiti Zabalza, Fermín	A	5	Kazetari-itzultzailea*	Jardunean
Biurrun Martiarena, José Miguel	B	7	Auditoretzako teknikari-Kontu-hartzailea	Jardunean
Azcona Díez de Ulzurrun, M <sup>a</sup> Carmen	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Balduz Gil, Elvira	B	6	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Bobadilla Bacaicoa, M <sup>a</sup> Pilar	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Etayo Salazar, Francisco José	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Gil Ochoa, M <sup>a</sup> Antonia	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Herrera Isasi, M <sup>a</sup> Begoña	B	3	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Irigoyen Olaiz, M <sup>a</sup> Lourdes	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Martcorena Chapa, Xavier Iñigo	B	5	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Martnikorena Matxain, Miren Edurne	B	3	Auditoretzako teknikaria*	Jardunean
Navarro Pérez, Saioa	B	1	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Rodríguez Jiménez, Ainara	B	2	Auditoretzako teknikaria*	Jardunean
Sabalza Navallas, Marta	B	1	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Sarasa Amatriain, Nuria:	B	1	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Zudaire Echávarri, Antonia Aurora	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria*	-
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	7	Administratzailea:	Jardunean
Casado Redín, Cristina	C	6	Administraria	Jardunean
Elizalde Del Rincón, Teresa	C	6	Administraria	Jardunean
Elizalde Elizalde, M <sup>a</sup> Julia	C	7	Administraria*	Jardunean
Lander Laurenz, M <sup>a</sup> Isabel	C	7	Administraria	Jardunean
Pérez de Albéniz Andueza, M <sup>a</sup> Francisca	C	6	Administraria	Jardunean
Erburu Elizondo, Fernando	C	7	Administraria	Zerbitzu bereziak prestakuntza
Pueyo Resano, Francisco Javier	C	5	Sistema informatikoetako teknikari-ofiziala	Aktiboa
Lanpostu hutsa	D	-	Mandataria*	-

\* Euskararen ezagutzarekin